

**AGINDUA, JAURLARITZAKO BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILBURUARENA, EUSKAL ENPLEGU SAREAREN ETA HAREN LURRALDE-MAPAREN DEKRETUA EGIN AURRETIK KONTSULTA PUBLIKOA EGITEKO DENA**

Enpleguaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak Enpleguaren Euskal Sarearen dekretua izapidetzeko prozedura hasia aurreikusi du. Dekretu hori Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 19. artikuluan eta hurrengoetan dago aurreikusita.

Ekainaren 30eko 6/2022 Legeak, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurarenak, 11. artikuluan xedatzen duenez, xedapen orokor bat idatzi aurretik, herritarren iritzia kontsulta publikoan jasoko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-oholaren bidez.

Kontsulta honako alderdi hauei buruzkoa izango da:

- Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- Onartzeko beharra eta egokitasuna.
- Arauen helburuak.
- Egon daitezkeen ordezkio irtenbide erregulatzaileak eta ez-erregulatzaileak.

Horregatik, erregelamendu-xedapena egin aurreko kontsulta-izapide hori bete nahi da, herritarrek eta eragindako gainerako erakundeek aukera izan dezaten planteatzen den arauan parte hartzeko eta ekarpenak egiteko, ukitutako sektoreen artean ahalik eta parte-hartze eta adostasun handiena lortzeko.

Horregatik guztiatik, kontsulta:

- Etorkizuneko araudi horren eraginpean egon daitezkeen erakunde publiko eta pertsona fisiko guztiei irekitzen zaie.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren web-atarian argitaratuko da.

Hogei egun balioduneko epea ezartzen da eragindako erakundeek, herritarrek eta haien entitateek egokitze jotzen dituzten iradokizun edo ohar guztiak aurkez ditzaten. Kontsulta publikoaren izapide hori, beraz, aurreikusitako lege-eskemari jarraituz egiten da une honetan. Gainera, arau-proiektua egin aurretik egiten da, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikulua arautzen duen hasiera-fasearen barruan.

Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 5eko 323/2024 Dekretuak ematen dizkidan eskumenak erabiliz, honako hau



**EBAZTEN DUT**

Lehenengoa.- Euskal Enplegu Sarearen dekretua eta haren Lurralde-mapa herritarrei aldez aurretik kontsultatzea, egin aurretik.

Bigarrena.- Herritarrek, hala uste badute, hogeit hamar egun balioduneko epea izango dute ebazpen honen eranskinean azaldutako alderdiei buruzko iritzia helarazteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarkitaulan argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren data.

MIGUEL TORRES LORENZO

Jaurlaritzako bigarren lehendakariordea eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburua

ERAZKINA

Euskal Autonomia Erkidegoko Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legeak (EEL) 19. artikuluan eta hurrengoetan arautzen du Enpleguaren Euskal Sarea, eta Euskal Autonomia Erkidegoan enplegu-politikak eta -zerbitzuak ematen parte hartzen duten eragile publiko eta pribatuen arteko lankidetzak eta koordinazio-sistema gisa eratzen du.

Enpleguaren arloko jarduera koherentea, koordinatua eta emaitzetara bideratua bermatzeko oinarritzko tresnatzat hartzen da Euskal Enplegu Sarea, pertsona eta enpresa erabiltzaileei arreta integrala ematea eta eskura dauden baliabideak eraginkortasunez erabiltzea ziurtatuz.

EELk berak aurreikusten du Enpleguaren Euskal Sarea erregelamendu bidez garatzea, sarea osatzen duten erakundeen osaera, antolaketa, funtzionamendua eta eskubideak eta betebeharrak zehazteko.

Proiektatu den dekretuaren bidez, arau-esparru komun bat ezarri nahi da, Euskal Enplegu Sarea Euskadin zerbitzuak emateko eta enplegu-politika publikoak gauzatzeko sistema integratu gisa gauzatu ahal izateko.

A) EKIMENAREN BIDEZ KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK

Ekimenak erantzuna eman nahi dio Euskal Enplegu Sarearen erregulazio argi eta sistematikoa izateko beharrari, enplegu-politiketan esku hartzen duten eta zerbitzu-zorroko zerbitzuak ematen dituzten eragileen artean ez gainjartzeko edo koordinazio falta izateko arriskuak gainditu ahal izateko.

Erregelamendu-garapenik ezean, sareak ez luke esparru operatibo komunik, euskal enplegu-sistemaren helburu estrategikoekin bat datorren jarduera homogeneoa, koordinatua eta lerrokatua bermatuko lukeena, eta langabeei, landunei eta enpresa eta erakunde enplegatzaileei zerbitzuak modu integratuan ematea zailduko lukeena.

Dekretuak, beraz, segurtasun juridikoa eta antolaketa-koherentzia eman nahi dizkio Euskal Enplegu Sareari, lan-merkatuaren eta erabiltzaileen beharrei erantzun eraginkorrak emateko gaitasuna indartuz.

B) ONARTZEKO BEHARRA ETA AUKERA

Euskal Enplegu Sarea arautzen duen dekretua onartzea beharrezkotzat eta egokitatzat jotzen da, honako arrazoi hauengatik:

- **Legezko agindua.** Enpleguari buruzko 15/2023 Legeak, 19. artikuluan eta hurrengoetan, berariaz aurreikusten du Enpleguaren Euskal Sarea erregelamendu bidez garatzea, eta erregelamendu-arau bati lotzen dio funtsezko elementuak zehaztea.
- **EELn aurreikusitako ereduaren garapen eraginkorra.** Erregelamendu-erregulazioak sareari buruzko lege-aurreikuspenak eraginkor bihurtzea

ahalbidetuko du, enplegu-politiken zerbitzura dauden eragile eta baliabideen sistema integratu gisa benetan funtzionatzea ahalbidetuz.

- **Koordinazioa indartzea.** Dekretuaren bidez, sarea osatzen duten kideen arteko koordinazio-eredu argi bat ezarri ahal izango da, enplegarritasunaren eta pertsonen eta enpresei laguntza ematearen ikuspegi integral bat bultzatuz.
- **Enplegu-politiken eraginkortasuna hobetzea.** Sarearen erregulazio komun batek garatutako jardueren kalitatea, koherentzia eta eraginkortasuna hobetzen lagunduko du, baliabide publikoen erabilera optimizatuz eta esku-hartzeak Euskadiko enpleguaren helburu estrategikoekin lerrokatuz.

C) ARAUAREN HELBURUAK

Etorkizuneko dekretuaren helburu nagusia Euskal Enplegu Sarea arautzea da, enplegu-politikak gauzatzen parte hartzen duten eta zerbitzu-zorroko zerbitzuak ematen dituzten eragileen arteko lankidetzaren sistema antolatu gisa, haren funtzionamendu koordinatua eta eraginkorra bermatuz.

Zehatzago esanda, hau lortu nahi da:

- Euskal Enplegu Sarearen osaera arautzea, sarea osatzen duten erakundeak eta eragileak identifikatuz, bai eta enplegu-sistema publikoarekin duten lotura ere.
- Sarea osatzen duten erakundeak sartzeko, parte hartzeko eta, hala badagokio, kargutik kentzeko araubidea ezartzea, EELn ezarritako printzipioen eta betekizunen arabera.
- Euskal Enplegu Sarea osatzen duten eragileen eginkizunak eta erantzukizunak zehaztea.

C) ORDEZKO IRTENBIDE ERREGULATZAILEAK ETA EZ-ERREGULATZAILEAK.

EELk Enpleguaren Euskal Sarearen erregelamendu bidezko garapenari buruz berariaz egindako aurreikuspenak kontuan hartuta, bai eta haren antolamendu eta funtzionamendurako esparru komun, orokor eta lotesle bat ezartzeko beharra ere, ez da hautabide errealik identifikatzen erregelamendu bidezko garapen-dekretu bat onartzeko.

Arauzkoak ez diren beste tresna batzuek edo akordio partzialek ez lukete bermatuko Euskal Enplegu Sarea enplegu-politika publikoen zerbitzurako sistema integratu gisa eratzeke eta eraginkortasunez funtzionatzeko beharrezkoak diren orokortasuna, koherentzia eta segurtasun juridikoa.